

## NORANTZA

# ANA GARMENDIA

Abegi Euskaltegiak-eko zuzendaria

## «Autoikaskuntzarako gela euskara ikasteko beste modu bat da»

Abegi Euskaltegiak-ek, HABEren laguntzaz, autoikaskuntzarako gela martxan jarri berri du. Honen helburua euskarren ikaskuntza ohiko metodoekin ikasteko aukerarik ez dutenei eskaintzea da.

## AMAIA MUNDINANO

Euskaraz ikasteko ohiko metodoak ez dira jende guztiarentzat egokiak izaten. Izan ere, norberaren ordutegiak askotan ez dute euskaltegiak dituztenekin bat egiten eta horrek euskaraz ikasteko zailtasunak sortzen ditu askorengan. Egunerokotasunean sortzen diren arazo horiek ekiditeko sortu da autoikaskuntzarako gela eta honetaz Ana Garmendia-rekin izan gara solasean.

Zein da autoikaskuntzarako gela sortzeko arrazoiak?

Proiektua zergatik sortu den azaltzerakoan, bi ikuspegi hartu behar dira kontuan. Batek, euskaltegien munduan aspaldian buruan genuen ideia zela eta, bestetik, euskararen ikaskuntzarako aukera bakarra euskaltegiaren ematen diren ohiko ikastaroak izanik, hauek kanpo jende asko gelditzen dela. Batzuetan lana dela, besteetan norberak bere bizitzan dituen beste hainbat gauza direla, euskaltegiak ordutegiak ez dira jende guztiarentzat egokiak. Hori ikusita, euskalduntze prozesuan sartu nahi duen jende horri ere aukera eman beharra zegoela pentsatu genuen eta ekimen hau martxan jartzeko erabakia hartu dugu.

Zer-nolako edukiak biltzen ditu?

Autoikaskuntzarako gelak eskaintzen dituen edukiak zabalak dira. Berezitasun handiena euskalduntze prozesuaren mundu honetan euskara teknologia berrietan sartzea izan da. Dena den, ekimena ez da bakarrik ordenagailuko programa batean oinarri-

tzen. Izan ere, euskaraz ordenagailuaren bitartez ikasteko prestatu den programaz gain, beste lau txokok osatzen dute gela: fitxen txokoak, entzumena eta ulermena lantzekoak eta irakurketarako guneak.

Kalitate oneko irakaskuntza ziurtatzen al du sistema berri honek?

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da autoikaskuntzarako gela hau ez dela ohiko ikastaroen ordezko. Zentzu horretan, ikastaroetara joateko aukera duen jendeak horietara jo behar du. Azken finean, ekimen honek euskaraz ikasteko aukera zabaltzen du. Kalitate-

ari dagokionez, berriz, pertsona bakoitzak gela horretan egiten duen lanaren arabera koa izango da. Argi dago ikaskuntza prozesua era egoki batean gauzatu ahal izateko egokitu diren txoko guztietan aritzea ezinbestekoa dela, baina, esan bezala, hori norberaren esku gelditzen da. Esaterako, ordenagailua bakarrik erabiltzen duenak helburu batzuk lortuko ditu, baina ez denak.

Esperientzia hau beste euskaltegi edota herrialdeetara zabaltzeko asmorik al duzue?

Aurrerantzean beste euskaltegi batzuetara zabaltzea pentsatzen dugu. Dena den, egitasmo hau aurrera eramaten ez gara gu bakarrik ari. Beste euskaltegi batzuen eta HABEko kideen artean talde txiki bat sortu dugu eta guztion asmoa autoikaskuntzarako gela hau beste toki batzuetara zabaltzea da.

Zein asmo dituzue aurrera begira?

Gure asmoa eskaintza hau bera bi mailatan zabaltzea da. Batek, euskarari prestigioa emanez, hau da, euskarak beste hizkuntzen ikasketarako metodo berrietara iristea lortu duela azpimarratzea eta, bestetik, ekimen hau maila ezberdinetan kaleratzea eta eskaintzea. Hau da, banakoei zerbitzu hau eskaintzeaz gain, taldeei, enpresa ezberdinetako langileei eta halako sektoreei eskaintzea izango litzateke. Guztion artean, beraz, euskalduntze prozesuan beste pauso bat egitea, euskarari prestigioa ematen dion pausoa, hain zuzen ere.



Karlo Corbelli

## ZIRTOKA



Txillardegí

Joanak joan

Euskal Herria ez da Txetxenia. Aznar ez da Arias Navarro. Aurten ez gaude 1975an, 2000an baizik. Onerako zein txarrerako, «joanak joan».

Baina abertzaleoi, «Lizarragarazi» eta «Udalbiltza» eskatzen dugunean, derrepente etortzen zaigu erantzuna: «ez da giro».

Eta, aitor dezagun, hein handi batean egia da. Presondegian 15, 18, 20 urte eman ondoren kalera iritxen diren gudariak, ez dira albeste. Hauxe da egia hita.

Asimilazioa aurrera joan da. Lehendabizi proiektuaren eraso galdu genuen: «sentirse cómodos», «negarse a comer habas», «todos los pactos tienen ventajas e inconvenientes», «seamos prácticos»...

Eta gainerakoa «bereze» etorri da. Orain auzenka nekaztea, alfei-lana.

Zer egingo? Udalbiltza abiaraz dezaketen gutxieneko helburuetara itzuli, ene ustez. Gutxieneko programa eta gutxieneko borroka-bideetara.

Ez inolaz ere gehienezko programa eta gehienezko borroka-bideetara.

PPAK gehiengo du: bototan eta izpirituetan, are gure herrialdean ere. Ez gaude espantuka eta hau gorenetan gaitzete uanean. Negu minean galdue. Eta negu minean hibernazioan bizi dira alimaliak oro, eta eikar berotuz.

Edozeren gainetik (eta behar direnaku ordu geldituz) gaur Udalbiltza indartu, abertzaleon arteko giroa hobetu, eta hizkuntzaren alorrean ahal den guztia egin.

Ala Euskal Herriaren chortza prestatzen hasi.

## AITZINDARIAK

### ZOILLO MOSO

1902-1970

NAHI DUT ERRANERRIBERAN ARTZAI EBILTZEN GINTZALARIK ZER BIZI GAYTOA EGITEN GINUEN GAIZKI XANIK ETA GAIZKI LO EGINIK KABANETAN...

XAIKI HADI TA MIRIGIN ZAK IZARRER IA TENOREA DENEZ!

ETA UR GUZIA BULARTEN ZIEN, ETA ANITZ ALDIZ IKUSTEN GINUEN NOLA PIXA EGITEN ZIEN BALSA BARNEAN...

ORDEZIE KORTIK DEMONIO ALU KANTABRIAK!!!

URDE PITO KARATSAK!!!

BEDATZEAN BERO EGITEN ZUELARIK ETA KAN EZPAITAGO ITURRI BAT ERE BAIZIK BALSA BATZUK LURRIAN EGINIK, EGORDIKOAN ABEREAK FATEN ZRELARIK EDATERA, MANDOAK SARTZEN ZREN BALSAN ERDIALARTIO...



TA GERO GUK ARTSALDEAN, EGARRI EGITEN BALMAGINUEN, BEHARKO GINUEN BALTSAN AHUSPEKA ESERI, ETA UR BULARRI KARTARIK EDAN, MANDO PIXA NAHASIRIK, EZPAITZEN BERTZERIK.

